



Euskararen geroa Justizia Administrazioan

Jaime TAPIA

Gasteizko epaile-magistratu dekanoa

1997ko abenduaren 18 eta 19an Justizia Administrazioako euskarari buruzko hausnarketa-jardunaldiak burutu ziren Gasteizen, zenbait epailek nahiz beste Justizia erakunde batzuek (Demokraziarako Epaile Elkarteak, kasu) joan den urteko hasieran egin zitezela eskatu baitzuten, uste zutelako bazela garaia arlo honetan gure hizkuntzak dituen arazoak eztabaidatzeko, eta bereziki egoera tamalgarri, ilun honetatik ateratzeko irtenbideak bilatu behar genituela pentsatu baikenuen denon artean.

Egun haietan erabili ziren zenbait gai eta argudioz baliatuko naiz nire jarrera honi guztiari buruz zein den azaltzeko eta, nire iritzi apalean, zein elementu uztartu beharko genituzkeen aurrerantzean, dauden akatsak konpontzeko.

Hasi baino lehen aitortu behar dugu batzar horretan antzeman genuenez Autonomi Erkidego honetako Justizia Administrazioan euskararen erabilera ez dagoela oraindik inolaz ere normalizaturik. Alde batetik, badago gizarte bat gero eta euskaldunagoa dena, eta euskara hutsean lan egiteko gai diren Zuzenbideko profesionalen kopurua hazten ari da; eta beste aldetik, badago erakunde bat biztanlegoaren aho bateko eskari horri egokitu ez zaiona.

Kinka larri eta jasangaitz hau eraldatzeko lehendabiziko erronka gure antolamendu juridikoa da, garbi geratu baitzen indarrean dagoen legediarekin oztopo ugari agertuko direla etorkizunean, nonhai eta edozein unetan, Justiziaren funtzionarioen eta bereziki epaileen

euskalduntze prozesua aurrera eramateko; beharrezko izango dena, epaile euskaldun kopuru nahikorik ez dagoenez gero, ikusten ditugun gabeziak amaitzea erdiesteko.

Baieztapen hori egiaztatzeko, Konstituzio Auzitegiak duela gutxi emandako probidentzi batera jo dezakegu, eremu honetako lege guztien interpretazioaren ondorioz. Ebazpen honen arabera, epaile-magistratuek ez dute euskaraz jakin behar, ez dute hizkuntza hori ikasi behar, eta itzulpen bitartez herritarren oinarrizko hizkuntz eskubideak bermatzen dira; edo beste era batera esanda, ez dira Konstituzioan agertzen diren eskubideak urratzen baliabide hori erabiliz gero.

Hala eta guztiz ere, erabaki hori onar dezakegun arren, aipatutako egoera juridiko hori kontuan izanik, honek ez du esan nahi beste

“ ... hau eraldatzeko
lehendabiziko erronka
gure antolamendu
juridikoa da.

”



hizkuntz eskubideak -Konstituziotik at daudenak alegia- hautsi daitezkeenik, eta horrek ezin du eragotzi edo galarazi ditugun lege eta araudiak gure legegile eta agintariak aldatzea gaur egun dauden zailtasunak gainditzeko eta batez ere euskara Justizia Administrazioan lehenbailehen sartzearen aurkako jarrerari aurre egiteko, eta inork gure legeria erabil ez dezan aitzakia gisa benetako urratsak bide onetik emateko.

Izan ere, 1978ko Konstituzioaren ezaugarriak nagusienetakoa bere malgutasuna edo zalutasuna da, beste arazoetan igarri ahal izan dugunez, eta Lege honen eta Gernikako Autonomia Estatutuaren interpretazio zabala erabiltzen badugu, beste lege batzuk, guztiz ezberdinak, aldarrika daitezke, funtzionario, epaile, fiskal zein idazkarien euskalduntze prozesua ahalbideratuko luketenak eta itzulpenaren bitartekaritza trabak jarriko lizkioketenak. Irudimen apur batez eta borondate handiarekin, legeak ezin du eragozpenik izan helburua lortzeko: Justizia Administrazioan euskara komunikaziorako ohiko tresna bihurtu dadila, biztanleen nahiz erakundeen eskarien arabera.

“ ... 1978ko Konstituzioaren ezaugarriak nagusienetakoa bere malgutasuna da.

”

Itzulpenaren aitzinean, gure artean oraindik denbora luzean iraungo duena -ez baitago, esan dugun bezala, epaile nahiz beste funtzionario euskaldun kopuru nahikorik euskaldunen hizkuntza eskubideak erdiesteko-, herritar eta legelari euskaldunak kexu agertu dira arrazoizko edo zentzuzko zioengatik, kontuan hartzen badugu itzulpenekin, itzulpena ondo eginda ere, epaileak auziperatu, lekuko eta adituen azalpenetatik ez ezik, abokatuen alegazioetatik ere zerbait (asko zenbaitetan) galtzen duela, eta hori zigor prozesuetan oso lanjerosoa da, pertsona baten askatasuna zein ondarea jokoan baitaude; honen haritik, behin-behinekotzat jo behar dugu itzulpena.

“ ... behin-behinekotzat jo behar dugu itzulpena.

”

Aldi baterako aro hau amaitu ondoren -ahal den laburren iraun beharko lukeena-, esan gabe doa, epaileraen oinarrizko lana edo zeregina zerbitzu publikoa den aldetik, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrek argitaratu berri duen Justiziaren Liburu Zurian oroitarazi digunez, gutxieneko kalitateko zerbitzu publikoa eskaini nahi baldin badugu, ezinbestekoa dela epaileek zein beste Justizia profesionalek euskaraz jakin dezatela, eta, zentzu honetan, ikaste prozesuak hastekoak dira datozen urteetan, lehen esan dugun bezala.

Epaileei dagokienez, baliteke onestea, hasiera batean behintzat, hauek lortu behar duten maila euskararen ezaguera pasiboa edo ulertzeko gaitasuna izateko, oraintxe ditugun eragozpenak saihesteko, beste autonomi erkidegoetan gertatu denez, zeren eta erabakiak euskaraz idatzi eta jakinarazteko, epaileek itzultzaile-dinamizatzaileen laguntza jaso dezakete.

Kontseilu Orokorrek, jomuga horretara heltzeko, Aginte Judizialaren Lege Organikoaren 341 artikularen garapenaz landa, bere araudiaren bitartez egingo dena, eskuarki baimen bereziak eman beharko dizkie euskaraz ikasteko interesatuta dauden epaileei.

Gizartearen hizkuntz eboluzio baikorra ikusirik, euskararen erabileraren gorakada gero eta nabariagoa baita (kalitatearena beste kontu

“ Epaileei dagokienez, baliteke onestea hauek lortu behar duten maila euskararen ezaguera pasiboa izateko.

”

“ ... jorratu beharko den beste esparru bat auzien banaketarena izango da.

”

bat da, hobetu egin beharko duguna), Euskal Autonomi Erkidegoan oztupoak sortuko zaizkio euskara behintzat ulertzeko gai izango ez den epaileari, eta egonezin horrek bultzatuko du, halabeharrez, ez badu Herriaren legitimitatea galdu nahi, bi mintzaira ofizialak jakitera.

Gertatzen ari den euskara juridikoaren hobekuntzak (ELERIA eta unibertsitateak nahiz beste erakunde batzuek egindako ahalegina lekuko) orain arte Erakunde honetan euskara sartzearen kontrako jarrera erakutsi zutenek aipatzen zuten beste arrazoi bat isilarazten lagunduko du, tratatzen ari garen eremuan euskaldunon hizkuntzak aurrera egin ez zezan; alegia, ezinezkoa zela hizkuntza horrekin lan egitea, urritasun anitz baitzuen.

Azkenik, jorratu beharko den beste esparru bat auzien banaketarena izango da. Izan ere, alde batetik, ikusi dugu nola XVIII. mendean Nafarroako erresuman bi eratako auzien banaketa burutu ohi zen: bata euskararen prozedurena eta bestea erdaldunei zuzendutakoa.

“ ... banaketa hori onartzeko jarri den enbarazurik garrantzitsuena Konstituzioaren 24.2 atalean bermatuta dagoen eskubidea da.

”

Bestetik, banaketa hori onartzeko jarri den enbarazurik garrantzitsuena Konstituzioaren 24.2 atalean bermatuta dagoen eskubidea da; hau da, legeak alde aurretik finkatutako epaile arrunta hautatzeko eskubidearen aurkakoa dela neurri hori; hala ere, enbarazu horri irtenbide juridiko bat eman zitzea egun haietan zehar, ohartu baikara eskubide hori ez litzatekeela urratuko baldin eta legeak zehatz-mehatz irizpide objektibo hori aurreikusiko balu, hizkuntzarena alegia, auziak banandu behar diren unean, eta honen ondorioz horri jarraituz banatuko balira, batez ere bi epaitegi edo gehiago baleude banatzeko momentuan.

Jakin badakigu hori onartzea pertsona batzuentzat ezinezkoa izango dela, deliberamendu honen gibelean deabruak ikusiko dituztelako (beste gertaera sinple batzuen atzean bezala, bestalde), eta horretarako gai honen azterketa juridikoan sakondu beharko dugu, beraiek jarriko dizkiguten trabetatik ihes egiteko, eta neurri hari muzin egin diotenei legezko zergaitiak plazaratzearen.

“ ... etorkizunari begira, nire ustez baikor egoteko arrazoirik badago.

”

Hauk eta jardunaldi haien ondorioetan azaldu diren beste iradokizunak aintzakotzat hartuko balituzte Euskal Herriko nahiz Estatuko agintariak, datozen urteetan Justizia Administrazioan euskararen arloan hobekuntza nabarmenak sumatuko genituzke.

Bukatzeko, etorkizunari begira, nire ustez baikor egoteko arrazoirik badago: alde batetik, hor dago gizartea, su eta gar, geldirik ez egotera bultzatzen gaituena, eta bestetik, aitaturiko jardunaldi haietako partaideek erakunde honetan euskararen aldeko joera nagusia azaldu zuten. Horri atxikitzen bazaio botere publikoek beren borondate tinko eta irmoa erakutsi dutela aldaketak egon daitezela, emaitza ezin hobea aterako dela edo arrakasta lortuko dugula uste izatea ez da iritzia ametsetan oinarritzea, egitate sendoetan baino.